



AGINDUA, 2023KO IRAILAREN 5EKOA, TURISMO, MERKATARITZA ETA KONTSUMOKO SAILBURUARENA, TURISMO, MERKATARITZA ETA KONTSUMO SAILAREN 2023KO DIRULAGUNTZEN PLAN ESTRATEGIKOA ONARTZEN DUEN AGINDUA BIGARREN ALDIZ ALDATZEN DUENA

I.- Turismo, Merkataritza eta Kontsumo Sailaren 2023ko otsailaren 21eko Aginduaren bidez, Turismo, Merkataritza eta Kontsumo Sailaren 2023ko Dirulaguntzen Plan Estrategikoa onartu zen.

Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 8.1 artikulua xedatzen duenez, administrazio publikoetako organoek edo dirulaguntzak ezartzea proposatzen duen edozein erakundek, aldez aurretik, dirulaguntzen plan estrategiko batean zehaztu beharko dituzte hura aplikatzean lortu nahi diren helburuak eta ondorioak, baita horiek lortzeko epea, aurreikusten diren kostuak eta finantzaketa-iturriak ere, betiere aurrekontu-egonkortasunaren helburuak betetzen badira.

Eskakizun hori betetze aldera, Turismo, Merkataritza eta Kontsumo Sailak plan batean zehaztu ditu 2023an XII. legegintzaldiko 2020-2024 aldirako Euskadiko Gobernu Programan zehaztutako jarduera-ildoak eta ekimen estrategikoak ezartzen eta garatzen jarraitzeko gauzatu nahi dituen dirulaguntzen programa eta jarduketa guztiak.

II.- 2020an, COVID-19aren pandemiak eragindako krisiarekin, ohiz kanpoko gogortasun-agertoki bat ireki zen merkataritza-sektorerako, ez bakarrik itxiera-aldi luze bati aurre egin ziolako edo kasu askotan eragin suntsitzailea zuten fakturazio oso txikiei aurre egin behar izan ziolako, baizik eta, oro har, ziurgabetasunez betetako jarduera berraktibatzeke agertoki bati aurre egin ziolako, aurreikusten den panorama ekonomiko gogorra zela eta.

2021ean, egoera pandemikoak bere horretan jarraitu zuen, kutsatzeetan ondoz ondoko gorakadekin. Hala ere, merkataritza-jarduerak gora egin zuen aurreko ekitaldiarekin alderatuta; hala, 2021. urte osoan, txikizkako merkataritzaren salmentak % 3,6 igo ziren.

Sektoreko salmenten goranzko joerak bere horretan jarraitu zuen 2022ko hasieran. Hala ere, Errusiak Ukraina inbaditu izanak ondorio ekonomiko larriak ekarri zituen, hala nola erregaiak eta lehengaiak garestitzea, denboran iraungo dutela aurreikusten baita. Horrek guztiak produktuen prezioaren igoera eta kontsumitzaileen erosteko ahalmenaren galera eragin zituen, eta, ondorioz, kontsumoa jaitsi egin zen.

2023ko lehen hilabeteetan txikizkako sektorean salmenten susperraldi ahula ikusten ari den arren, 2019ko maila pre-pandemikoetara begira, azken hilabeteetan kontsumoa moteltzea espero da, baldintza ekonomiko orokorren eta kontsumitzailearengan duen eraginaren ondorioz.

Euskal merkataritza-sektoreari ahalik eta gutxien eragiteko, Turismo, Merkataritza eta Kontsumo Saileko Merkataritza Zuzendaritzak "Euskadi Bono-Comercio/Euskadi Bono-Denda" programa arautu nahi du, Euskal Autonomia Erkidegoko hiriko merkataritza-jarduerarekin lotutako merkataritza- eta zerbitzu-sektoreko establezimenduetan tokiko merkataritza txikia suspertzeko eta kontsumorako pizgarriak emateko.





III.- Eusko Legebiltzarrak, 2022ko ekainaren 15ean egindako bilkuran, Merkataritza, Kontsumo eta Turismo Batzordeak 46/2022 Legez besteko Proposamena onartu zuen, herri txikietan premiazko produktuen hornidura bermatzeko dendak sustatzeari buruzkoa.

Onartutako LBPK honako hau zioen:

“ Legebiltzarrak Jaurlaritzari eskatzen dio:

1. Zerikusia duten erakunde eta organismoekin lankidetzan, merkataritza-sektoreari eta merkataritza-jarduerarekin lotutako zerbitzuei buruzko azterlan bat egitea, eta 2.000 biztanletik beherako landa-eremuko udalerrietan sektore hori ezartzea.

2. Tokiko erakundeentzako laguntza-programetan sartzea landa-eremuko merkataritza-sektoreko jarduera ekonomikoa eta merkataritza-jarduerarekin lotutako zerbitzuak sustatzeko ildoak, batez ere 2.000 biztanletik beherako udalerrri eta herrietan. Ildo horiek lurralde-eremu bakoitzaren errealitate sozioekonomikoari erantzun beharko diote, eta dauden ekimenak merkataritza-proiektu berriekin integratu ahal izango dira, baita salmenta ibiltariaren proiektuekin ere, baita ostalaritzarekin eta turismoarekin ere, publikoak zein pribatuak, tokiko produktuen salmenta sustatuz.”

Horregatik, Eusko Ikaskuntza-Sociedad de Estudios Vascos elkartearekin lankidetzan aritzeko dirulaguntza zuzena ematen da, Herri Txikien Akademiaren proiektuaren esparruan. Erakundeak bultzada berri bat eman nahi die azken urteotan herri txikiak biziberritzera bideratutako lurralde orekatu baten alde hedatu diren ekimen eta ikerketei.

IV.- Merkataritza 2030 Merkataritza Estrategiak, onartu berri denak, funtsezko bost eraldaketa-bektore ezartzen ditu merkataritza-sektorea bultzatzeko. Bertan, Ezagutzaren Kudeaketa nabarmentzen da azelerazio-bektore garrantzitsu gisa, aldaketaren erregai gisa. Ezagutzaren Kudeaketa horren helburua da berrikuntza eraldaketa sektorialaren eragile bihurtzea eta ezagutzaren erabilera sartzea enpresen estrategia instituzionalaren eta merkataritza-ekintzaren euskarri gisa. Ezagutzaren Kudeaketarako formulatzen den ekimenetako bat berrikuntza-huba da, espazio ireki, topagune eta/edo lankidetzaren sare gisa sortua, merkataritza-sektoretik nahiz haren inguruko beste esparru batzuetatik datozen berrikuntza-eragile eta -ekimen/proiektuak identifikatzeko, integratzeko eta mobilizatzeko: berrikuntza-sektore proaktiboko enpresak, retailari aplikatutako edo aplikatutako dakizkikeen proiektuak dituzten zentro teknologikoak, unibertsitatea eta akademia oro har, zerbitzu aurreratuetako enpresak – aholkularitzak eta ingeniariak, industria-enpresak, etab.

Helburua, beraz, txikizkako merkataritzari lotutako ezagutzak aztertzea, ikertzea, irakastea, prestatzea eta transferitzea izango da, garrantzitsutzat jotzen diren ikuspegi guztietatik.

Ildo horretatik, UPV/EHU- Basque Retail Lab Merkataritza Katedrak, bere jardueraren emaitzetatik abiatuta, lagundu ahal izango du estrategia lerrokatu bat eraikitzen lurraldearen eta euskal sarean kokatzen den jarduera duten merkataritza- eta zerbitzu-enpresen artean, ikerketatik eta ezagutzaren hedapenetik abiatuta.

UPV/EHUK, "Basque Retail Lab" merkataritza-katedraren bidez, tokiko garapen ekonomikoa eta merkataritza-sarearen iraunkortasuna lortzen lagun dezake, pertsonen eta haien inguruneen bizi-kalitatea hobetzera bideratuta, ikerketaren eta ezagutzaren hedapenaren bidez.



V.- Planean sartutako jarduketan xehetasuna honako hauetan aurreikusitako printzipioei jarraikiz egin da: azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretuaren bidez onartutako Euskadiko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen testu bateginaren 3. eta 49.1 artikulua; Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorren 8.3 artikulua; Euskal Autonomia Erkidegoko 2022ko ekitaldiko Aurrekontu Orokorren onartzen dituen abenduaren 23ko 11/2021 Legea, eta Kontrol Ekonomikoko Bulegoaren dirulaguntzen plan estrategikoak egiteko 01/15 zenbakiko zirkularrak gaineratzen dituen jarraibideak.

Horregatik guztiagatik, eta Jaurlaritzari buruzko ekainaren 30eko 7/1981 Legearen 26.4 artikulua ematen dizkidan eskumenez baliatuz, honako hau

EBAZTEN DUT

LEHENENGOA. – Turismo, Merkataritza eta Kontsumoko sailburuaren 2023ko otsailaren 21eko Agindua aldatzea, Turismo, Merkataritza eta Kontsumo Sailaren 2023rako Dirulaguntzen Plan Estrategikoa onartzen duena, eta ardatz estrategikoetan honako ekintza hauek sartzea, I. eta II. eranskinetan zehaztutako moduan.

BIGARRENA. – Kontrol Ekonomikoko Bulegoari agindu honen berri emateko eta horren berri emateko agintzea, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoan, sailaren webgunean eta gardentasun-atarian argitaratuz.

Vitoria-Gasteizen, 2023ko irailaren 5ean

Turismo, Merkataritza eta Kontsumoko sailburua,
JAVIER HURTADO DOMÍNGUEZ



I. ERANSKINA

TURISMO, MERKATARITZA ETA KONTSUMO SAILAREN DIRULAGUNTZEN PLAN ESTRATEGIKOA

2.- ARDATZ ESTRATEGIKOA: MERKATARITZA-SEKTOREAREN LEHIAKORTASUNA SUSTATZEA

Organo kudeatzailea: Merkataritza Zuzendaritza

46. konpromisoa. Merkataritzaren eta ostalaritzaren lehiakortasuna hobetzea.

Fitxa	Diru-laguntza lerroa	Zenbatekoa 2023	Zenbatekoa 2024
1.8.46.13	Dirulaguntza zuzena Eusko Ikaskuntza-Sociedad de Estudios Vascos elkarteari, Euskadiko herri txikietako tokiko merkataritzaren egoera aztertzeko	17.061 €	19.239 €
1.8.46.14	Dirulaguntza zuzena Euskal Herriko Unibertsitateari, "Basque Retail Lab" Merkataritza Katedra sortzeko	30.000 €	30.000 €
	TOTAL	47.061,00 €	49.239,00 €

47. konpromisoa. Tokiko merkataritza eta ostalaritza bultzatzea.

Fitxa	Diru-laguntza lerroa	Zenbatekoa 2023	Zenbatekoa 2024
1.8.45.2	Tokiko merkataritza txikia suspertzeko eta merkataritza-sektoreko establezimenduetan eta hiriko merkataritza-jarduerarekin lotutako zerbitzuetan kontsumorako pizgarriak emateko programa	4.500.000 €	500.000 €
	TOTAL	4.500.000 €	500.000 €



II. ERANSKINA

1.8.46.13 fitxa:

Helburu estrategikoa (46. konpromisoa): Merkataritzaren eta ostalaritzaren lehiakortasuna hobetzea
Organoa: Merkataritza Zuzendaritza
Programa: Barne-merkataritza (7612)
Diru-laguntza ildoak: Dirulaguntza zuzena Eusko Ikaskuntzari

Helburuak, ekintzak eta adierazleak		
	2023	2024
Helburua: Euskadiko herrietako merkataritzaren egungo egoera sakon ulertzea, hura hobetzen lagunduko duten politika espezifikoak diseinatzeko.		
Ekintza: Herri txikietako merkataritzaren egoeran eragina izan dezaketen aldagai garrantzitsu batzuk identifikatzea eta aztertzea..		
Adierazlea: 2023an aztertutako herri txikien kopurua eta 2024an neurri-proposamenak egin zaizkien herrien kopurua	150	50

Aurrekontu-konpromisoak eta finantzaketa-ehunekoa finantzaketa publikoaren globalarekiko		
	2023	2024
4 Kapituluak	17.061 €	19.239 €

Sektore hartzaileak eta emateko prozedura	
Sektore hartzaileak:	Euskadiko herri txikietako merkataritza-sektorea
Emateko prozedura eta instrumentalizatzeko modua:	Zuzeneko dirulaguntza, Gobernu Kontseiluaren erabakia

1.8.46.14 fitxa:

Helburu estrategikoa (46. konpromisoa): Merkataritzaren eta ostalaritzaren lehiakortasuna hobetzea
Organoa: Merkataritza Zuzendaritza
Programa: Barne-merkataritza (7612)
Diru-laguntza ildoak: Dirulaguntza zuzena UPV/EHUri

Helburuak, ekintzak eta adierazleak		
	2023	2024
Helburua: Txikizkako merkataritza-sektorearen ezagutzaren eta ikerketaren kudeaketa.	2	4



<p>Ekintza: Txikizkako merkataritzari lotutako ezagutzak aztertzea, ikertzea, irakastea, prestatzea eta transferitzea, garrantzitsutzat jotzen diren ikuspegi guztietatik.</p> <p>Adierazlea: katedrak egin beharreko ekintzak: gradu amaierako edo master amaierako zenbat lan tutorizatu eta/edo saritu diren, zabalkunde-ekintzen kopurua, egindako txostenen kopurua, egindako jardunaldien kopurua edo argitalpenen kopurua.</p>		
---	--	--

Aurrekontu-konpromisoak eta finantzaketa-ehunekoa finantzaketa publikoaren globalarekiko		
	2023	2024
4 Kapituluak	30.000 €	30.000 €

Sektore hartzaileak eta emateko prozedura	
Sektore hartzaileak:	Merkataritza-sektorea
Emateko prozedura eta instrumentalizatzeko modua:	Zuzeneko dirulaguntza, Gobernu Kontseiluaren erabakia

1.8.47.7 fitxa:

Helburu estrategikoa (47. konpromisoa): Tokiko merkataritza eta ostalaritza bultzatzea.
Organoa: Merkataritza Zuzendaritza
Programa: Barne-merkataritza (7612)
Diru-laguntza ildoak: tokiko saltoki txikiak suspertzeko plana eta kontsumorako pizgarriak

Helburuak, ekintzak eta adierazleak		
	2023	2024
<p>Helburua: Barne-merkataritza berrabiaraztea</p> <p>Ekintza: Euskal merkataritza-sektoreari zuzenean babes eta euskarri ekonomikoa emateko oinarriak ezartzea, bereziki norberaren konturako langileei edo autonomoei, mikroenpresei eta enpresa txikiei eta merkataritza-jarduera ahalik eta lasterren berrabiaraztea ahalbidetzeko.</p> <p>Adierazlea: lagundutako merkataritza-enpresen kopurua.</p>	4.500	

Aurrekontu-konpromisoak eta finantzaketa-ehunekoa finantzaketa publikoaren globalarekiko		
	2023	2024
4 Kapituluak	4.500.000 €	500.000 €

Sektore hartzaileak eta emateko prozedura	
Sektore hartzaileak:	Euskal merkataritza-sektoreko pertsona fisikoak, mikroenpresak, autonomoak eta enpresa txikiak



Emateko prozedura eta instrumentalizatzeko modua:

Deialdia. Agindua. Emakida: ebazpena